



UZTAILA 2026 / JUILLET 2026

UZTARITZE^K HERRIA

1. HERRIKO INFORMAZIO ALDIZKARIA BULLETIN D'INFORMATION MUNICIPAL N°1

Zuekin aurrera!
Uztaritze avance avec vous!



ELECTIONS MUNICIPALES / HERRIKO BOZAK

Membres du conseil municipal / Herriko Etxeko hautetsiak	4
Transition nouvelle équipe / Talde berria Herriko Etxean	6

AUZO BATZORDEAK / COMITÉS DE QUARTIER

Un groupe ouvert à tous les habitants du quartier	7
Auzoko biztanle guziei idekitako taldea	7

KULTURA / CULTURE

Hartzaro omentzeko horma-irudia	8
Une fresque pour mettre à l'honneur Hartzaro	9

TRAVAUX VOIRIE / BIDEAK

Inaugurations majeures	10
Estreinaldi garrantzitsuak	11

TRANSIZIO EKOLOGIKOA / TRANSITION ECOLOGIQUE

Un composteur de quartier à Hiribehere	12
Auzo-konpostagailu bat Hiribeheren	13

KIROLA / SPORT

Les 100 ans du Kapito Harri	14
Kapito Harriren mendeburua	15

BESTAK / FESTIVITÉS

Uztaritzeko Bestak	16
Fêtes d'Uztaritze	17

FINANTZAK / FINANCES

2026ko aurrekontua / Budget 2026	18
--	----

SOZIALA / SOCIAL

Errepiragaraia	19
----------------------	----

HAUR GAZTERIA / ENFANCE JEUNESSE

Par toutatis ! La potion magique d'un été a réussi !	20
Gazte Kontseiluaren ziklo berria	21

KLIMA / CLIMAT

Planeta alerta gorrian / La planète voit rouge	22
--	----

OPOSIZIOA / OPPOSITION

Ensemble pour Ustaritz	23
------------------------------	----

EGOERA ZIBILA / ETAT CIVIL	24
----------------------------------	----

Argitaratze zuzendaria / Directeur de publication : Piero ROUGET
Diseinua / Mise en page : Harri IDOATE - Izarte Komunikazioa - www.izarte.com
Inprimaketa ardura / Imprimé par : Izarte Komunikazioa

*Photo des jardins
familiaux prise par
Emmanuelle
LAFOURCADE CORBY

* Emmanuelle
LAFOURCADE CORBY-k
hartutako familia baratzeen
argazkia



Piero ROUGET
Auzapeza / Maire

MOT DU MAIRE / SAR HITZA



Uztariztar maiteak,

Emozio handiarekin dizuet kargualdi huntako lehen aldizkaria aurkeztzen. Egin didazuen konfiantzaz berriz ere eskertzeko parada izanen da ere.

Ene gain hartzen dudan ardura berriaren garrantziaz guztiz ohartua naiz, eta zerrendakideekin batera, Uztariztar guztien alde eraginkortasunez ariko gara.

Aldizkari hau parada izanen da ere 2014az geroztik Uztaritzeren alde lan egin duten hautetsi guztiei, eta bereziki Bruno CARRERERi, ene eskerrak adierazteko. Bilan sendoa eta herriko zerbitzu trebeak dauzkagu kargualdia hasteko.

Uztaritzek erronka eta egiteko anitz ditu, eta hautatu gintuzuen lehen egunetik, herriko zerbitzuekin batera lanean ari gara. Proiektuak aurkeztuak, eztabaidatuak eta landuak izanen dira udaleko instantzia desberdinetan, oposizioko udal kontseilarien parte-hartzearekin. Herritarren parte hartzea ere gure eginmoldearen erdigunean egonen da, zuek erabakietan inplikatzeko.

Kargualdi huntako lehen hilabetei dagokienez, hona hemen zenbait puntu garrantzitsu:

- Trantsizioko aurrekontu bat onartu dugu, aitzineko herri-gobernuak abian jarritako inbertsio handietako batzuk bururatzeko eta beste batzuk martxan ezartzeko. Horrela, mediatekako obrak azken fasean sartuak dira, eta 2027ko udaberrian irekitzea aurreikusten dugu. Gure kirol instalazioetan ere lan garrantzitsuak egingen dira uda huntan: Etxepareako zelai sintetikoa berrituko dugu eta Kiroletako trinketa erreberrituko.
- Batzorde desberdinak (hirigintza-obrak, haur eta gazteria, trantsizio energetiko eta ekologikoa, kultura-kirola-elkarte bizitza, Gizarte Ekintzarako Herriko Zentroa, hizkuntza politika, etab.) martxan dira jada eta lehen ekintzak abiatuak dituzte.
- Irailetik aitzina, 6 auzo-batzordeak berriz abiatuko dira, etorkizuneko proiektuei buruz zuekin trukatzeko.

Uztaritzeko bestak uztailaren 23etik 26ra iraganen dira, ostegunetik igandera, eta guziak gonbidatuak zarete uztailaren 26an, igande eguerdian, Herriko Etxearen aperitifan gurekin parte hartzera Hiribehere plazan.

Guziei uda ederra pasatzea desiratzen dizuet,

Lerro hauek idazten ditudan momentuan, beroaldi gogor bati aurre egin behar diogu, eta bereziki pertsona ahulenei pentsatzen dut. Ziurtatu nahi dizuet hautetsiek eta herriko langileek ahal duten guzia egin dutela egoera horren ondorioak arintzeko. Horretarako, guziei zabalik den gela fresko bat antolatu dute Gaztelondoa, baita eskoletako haurrak gune klimatizatueta hartzeko antolaketa ere.

Chers Uztariztar,

C'est avec une grande émotion que je vous présente le premier bulletin de cette mandature. Il me permet de vous remercier à nouveau pour la confiance que vous m'avez accordée lors des élections municipales de mars dernier.

Je mesure pleinement la responsabilité de cette nouvelle fonction et, avec mes colistiers, il nous appartient d'agir efficacement au service de notre commune et pour tous les Uztariztar.

Ce bulletin est aussi l'occasion de remercier l'ensemble des élus sortants, et en particulier Bruno Carrère, qui ont œuvré depuis 2014 pour accompagner l'évolution d'Uztaritze. Nous pouvons nous appuyer sur un bilan solide et des services communaux compétents pour entamer notre mandat.

Les enjeux et défis pour Uztaritze sont nombreux et, depuis le premier jour de notre élection, nous sommes, avec les services de la commune, au travail. Les projets seront présentés, débattus, travaillés dans les différentes instances municipales dans lesquelles les conseillers municipaux d'opposition sont présents.

La participation citoyenne sera également au cœur de notre fonctionnement pour vous impliquer dans les décisions.

En ce qui concerne les premiers mois de ce début de mandat, je souhaite évoquer quelques points majeurs:

- Un budget de transition qui vient clôturer certains investissements importants débutés par la précédente municipalité et en initier de nouveaux. Ainsi, les travaux de la médiathèque entrent dans leur dernière phase pour une ouverture prévue au printemps 2027. Et dès cet été, le lancement de travaux importants au niveau de nos installations sportives est programmé avec d'une part la rénovation du terrain synthétique d'Etxeparea et d'autre part la réfection du trinquet à Kiroleta.
- Les différentes commissions municipales (urbanisme-travaux-voirie, enfance-jeunesse, transition énergétique et écologique, culture-sport-vie associative, CCAS, politique linguistique, ...) sont en place et ont engagé leurs premières actions.
- Dès le mois de septembre, les 6 comités de quartier seront réactivés pour relancer la participation citoyenne et échanger collectivement sur de futurs projets.

Les fêtes d'Uztaritze se dérouleront du jeudi 23 au dimanche 26 juillet. Vous êtes toutes et tous convié.e.s à y participer et à venir partager avec nous l'apéritif de la mairie le dimanche 26 juillet à midi sur le fronton d'Hiribehere.

Je vous souhaite à toutes et tous de passer un excellent été,

A l'heure où j'écris ces lignes, nous sommes confrontés à un épisode intense de canicule et j'ai une pensée particulière pour toutes les personnes les plus vulnérables. Je tiens à vous assurer que les élus et les agents municipaux ont tout mis en œuvre pour en atténuer les conséquences et ont proposé un espace de fraîcheur convivial ouvert à tous à Gaztelondoa et l'accueil des enfants des écoles dans des lieux climatisés.

ELECTIONS MUNICIPALES



Piero ROUGET
Auzapeza/Maire



Hélène MARTY-CHALEON
ADJOINTE :
Transition écologique, éner-
gétique et sociale
Conseillère Communautaire
AUZAPEZORDEA :
Trantsizio ekologikoa, ener-
getikoa eta soziala
Elkargoko kontseilaria



Ugo MOULIA
ADJOINT :
Urbanisme
Développement du territoire
Activités économiques
AUZAPEZORDEA :
Hirigintza
Lurraldearen garapena
Jarduera ekonomikoak



Sandra IDIEDER
ADJOINTE :
Finances
Ressources Humaines
AUZAPEZORDEA :
Finantzak
Giza Baliabideak



Jean-Michel SERRANO
ADJOINT :
Travaux
Agriculture - Forêt
Accessibilité - Cimetières
AUZAPEZORDEA :
Obrak - Laborantza
Oihana
Helgarritasuna - Hilerriak



Joana GOYHENECHÉ-CEDARRY
ADJOINTE :
Culture - Sport
Associations
Patrimoine
AUZAPEZORDEA :
Kultura - Kirola
Elkarteak
Ondarea



Ximun LASTIRI
ADJOINT :
Politique linguistique
Communication
Jumelage Tolosa
AUZAPEZORDEA :
Hizkuntza-politika
Komunikazioa
Tolosarekilako senidetzea



Cristel ROUMA
ADJOINTE :
Petite enfance
Enfance - Jeunesse
AUZAPEZORDEA :
Lehen haurtzaroa
Haurtzaroa - Gazteria



Jean-François RUYS
ADJOINT :
Action sociale
Participation citoyenne
AUZAPEZORDEA :
Gizarte ekintza
Herriarren parte-hartzea



Christelle LARRIEU
CONSEILLÈRE DÉLÉGUÉE :
Solidarité
Participation citoyenne
Marché
KONTSEILARI ORDEZKARIA :
Elkartasuna
Herriarren parte-hartzea
Merkatua



Jérémie MANGUIN
Conseiller Communautaire
Elkargoko kontseilaria



Nikolas BLAIN
CONSEILLER DÉLÉGUÉ :
Outils communication
KONTSEILARI ORDEZKARIA :
Komunikazio tresnak



**Isabelle
OURET-LALANNE**
CONSEILLÈRE DÉLÉGUÉE :
Jeunesse
KONTSEILARI ORDEZKARIA
: Gazteria



**Christian
SOCODIABEHÈRE**
CONSEILLER DÉLÉGUÉ :
Aménagements et travaux durables
KONTSEILARI ORDEZKARIA :
Antolaketak eta obra iraunkorrak



**Jean-Laurent
ESTEINOU**
CONSEILLER DÉLÉGUÉ :
Associations culturelles
et sportives
KONTSEILARI ORDEZKARIA :
Kultura eta kirol elkarteak



**Mathieu
URRUTIA**
CONSEILLER DÉLÉGUÉ :
Associations culturelles
et sportives
KONTSEILARI ORDEZKARIA :
Kultura eta kirol elkarteak



**Katia
DRIEUX**



**Magali
GRUBERT**



**Lauriane
INCHAUSPE**



**Petra
ALZUYET**



**Allande
ETCHEPAR**



**Anne
JOTHY**



**Betti
SARRATIA**

Liste d'opposition

Oposizioko zerrenda



**Bruno
CENDRES**
Conseiller Communautaire
Elkargoko kontseilaria



**Myriam Lupita
DI COSTANZO**



**Eric
DARQUY**



**Christelle
GUILTCOU-LARRONDE**



**Gilles
DESGROLARD**



**Nathalie
DUFOURCQ-HARISTOY**



TRANSITION NOUVELLE ÉQUIPE

Le conseil municipal est composé de 29 élus, dont 23 membres de la majorité municipale et 6 membres de l'opposition. Il réunit des élus qui poursuivent leur engagement au service de la commune ainsi que de nouveaux conseillers municipaux, aux parcours et aux expériences variés.

Cette nouvelle mandature s'inscrit dans la continuité des actions engagées ces dernières années. Les réalisations menées, les investissements effectués et la gestion rigoureuse des finances communales constituent des bases solides pour poursuivre le développement d'Uztaritze.

Au cours des prochaines années, l'équipe municipale continuera à accompagner l'évolution de la commune en veillant à préserver son cadre de vie, son identité et la qualité des services rendus aux habitants. Les élus resteront mobilisés et à l'écoute des Uztariztar afin de répondre au mieux aux besoins de chacun.

TALDE BERRIA HERRIKO ETXEAN

Herri hauteskundeen ondotik, herri-tarrek gure herriaren gidaritzza Piero Rouget-ren inguruan osatutako talde berritu bati ematea erabaki dute.

Herri kontseilua 29 hautetsik osatzen dute: herri gehiengoko 23 kidek eta oposizioko 6 kidek. Hautetsi batzuek beren engaiamendua segitzen dute, esperientzia eta gaien ezagutza ekarri; aldi berean, kide berriak taldeari juntatu zaizkio, Uztaritzeren zerbitzuan aritzeko gogoz.

Agintaldi berri hau, azken urteotan egindako lanaren jarraipenean segituko du. Burututako egitasmoek, herri zerbitzuen egituratzeak, egindako inbertsioek eta herriaren finantzen sendotze iraunkorrak oinarri sanoa eskaintzen dute gaur egun Uztaritzeren garapena aitzina eramateko.

Datozen urteetan, herriko hautetsiek Uztaritzeren garapena laguntzen segituko dute, herriaren bizi-ingurunea, nortasuna eta herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuen kalitatea zainduz. Hautetsiak engeiatuak eta Uztariztarren beharren adi egonen dira, bakoitzaren beharrei ahalik eta hobekien erantzutzeko.

UN GROUPE OUVERT A TOUS LES HABITANTS DU QUARTIER

Tout habitant d'un quartier peut intégrer le bureau élargi de son Comité de Quartier (CdQ), à tout moment, sans attendre la prochaine assemblée générale.

Constitués des citoyens d'Uztaritze, ils sont un organe fort de la participation citoyenne.

Ils sont au nombre de six: Heraitze, Arruntza, Bourg-Xopolo, Hiribehere-Sokorrondo, Saint Michel, Etxehasia-Astobizkar.

Les CdQ sont des instances de réflexion et d'échanges sur le quotidien et le devenir des quartiers. Ils interviennent également sur les projets plus structurants. Ils émettent des avis et des propositions sur les aspects de la vie de leur quartier et de la commune. Ils participent à son animation et créent des occasions de rencontres conviviales entre les habitants.

Un règlement intérieur définit sa composition et son fonctionnement.

Une première assemblée générale (dont la date est fixée par la mairie) entre habitants du même quartier désigne un bureau (président, vice-président et secrétaire). Ils ont un rôle de coordination et sont chargés d'animer les réunions du comité.

Pour chaque CdQ un conseiller municipal est désigné " référent ". Il est l'interlocuteur privilégié chargé des échanges entre le CdQ et les instances municipales. Les comités de quartier se réunissent à la fréquence d'une réunion tous les deux ou trois mois.

Les réunions de mise en place des nouveaux comités débuteront au mois de septembre. Les dates seront communiquées prochainement sur les réseaux sociaux de la mairie, par voie de presse et par mailing.

AUZOKO BIZTANLE GUZIEI IDEKITAKO TALDEA

Auzo bateko edozein biztanlek bere Auzo batzordeko bulego zabalduan parte har dezake, edozein unetan, hurrengo biltzar orokorra igurikatu beharrik gabe.

Uztaritzeko herritarren parte-hartzetik sortuak, egitura hauek herritarren inplikazioaren oinarri sendoak dira.

Sei auzo batzorde daude: Heraitze, Arruntza, Purgu-Xopolo, Hiribehere-Zokorrondo, San Michel eta Etxehasia-Astobizkar.

Auzo Batzordeak gogoeta eta trukaketarako espazioak dira, auzoetako eguneroko bizitzari eta etorkizunari buruz. Egitura handiagoko proiektuetan ere parte hartzen dute. Auzoko eta herri etxe osoko bizitzari buruzko iritzia eta proposamenak ematen dituzte. Auzoaren animazioan laguntzen dute eta bizilagunen arteko topaketa eta harreman atseginak sustatzen dituzte.

Barne araudi batek haien osaera eta funtzionamendua zehazten ditu.

Lehen batzar orokor batean (herriko etxeak zehaztutako datan), auzo bereko biztanleek bulego bat hautatzen dute (lehendakaria, lehendakariordea eta idazkaria). Haien eginkizuna koordinaketa eta bilkuren dinamizatzea da.

Herriko etxeak izendatutako hautetsi bat "erreferentea" da auzo batzorde bakoitzarendako, eta Auzo Batzordeen eta herriko etxeen erakundeen arteko lotura nagusia da.

Auzo Batzordeak bi edo hiru hilabetero biltzen dira.

Batzorde berrien abiatze bilkurak irailean hasiko dira. Datak herriko etxearen sare sozialetan, prentsan eta mezu bidez jakinaraziko dira.

HARTZARO OMENTZEKO HORMA-IRUDIA



HARTZARO

Uztaritzeko sarreran, Lapurdiko Bizkondeen biribilgunearen parean, horma-irudi berri batek begirada erakartzen du orain. Herriak abian jarritako proiektu-deialdi baten baitan egina, obra honek Hartzaro omentzen du, urtero Uztaritzeko ihauteri tradizioa biziarazten duen jaialdia.

Hautatutako proiektua Hartzaro festibala antolatzen duen Herri Soinu elkarteak aurkeztu zuen, XAB XAB artistarekin elkarlanean. Xabi Tapia Urruñarra margolari eta muralista ezaguna da street art-aren alorrean egiten duen lanagatik.

Obrak ihauterietako hainbat pertsonaia ezagun irudikatzen ditu. Gehienbat zuri-beltzean egina, kolore golpe batzuekin, bere errealismoagatik eta xehetasunen aberastasunagatik nabarmentzen da. Herriaren sarreran ikusgai denez, gure kultur bizitzan barna sartua den tradizio bati balioa ematen dio.

Proiektuak gazteenak ere ekimen artistiko huntan parte hartzera gonbidatu

ditu. Horma-irudia egiten ari ziren bitartean, aisialdi guztiaren haurrek, Gazteguneko gazteek eta Saint-François-Xavier ikastetxeko ikasleek artista ezagutzeko eta horma-obra baten sorkuntza prozesuko urrats ezberdinak deskubritzeko parada izan zuten. Besteak beste, marrazkian, street art-aren teknikan eta marrazki-moldeen sorkuntzan trebatu ziren.

Esperientzia horrek segida izan zuen haien obra propioen sorkuntzarekin. Ondotik, lan horiek Hartzaro festibal garaian ikusgai egon ziren Lapurdi gelan.

Horma-irudi honi esker, Hartzaroko pertsonaiak eta espiritua urte osoan zehar ikus daitezke orain Uztaritzeko sarreran.



UNE FRESQUE POUR METTRE À L'HONNEUR HARTZARO

Le projet retenu a été porté par l'association Herri Soinu, organisatrice du festival, en collaboration avec l'artiste XAB XAB. Originaire d'Urrugne, Xabi Tapia est un peintre et muraliste reconnu pour son travail dans le domaine du street art.

L'œuvre représente plusieurs personnages emblématiques du carnaval. Réalisée principalement en noir et blanc, avec quelques touches de couleur, elle se distingue par son réalisme et la richesse de ses détails. Visible par tous à l'entrée de la commune, elle met en lumière une tradition profondément ancrée dans la vie culturelle.

Le projet a également permis d'associer les plus jeunes à cette démarche artistique.

Tout au long de la réalisation de la fresque, des jeunes de l'accueil de loisir, de l'Espace Jeunes ainsi que des élèves du collège Saint-François-Xavier ont pu rencontrer l'artiste et découvrir les différentes étapes de création d'une œuvre murale. Ils ont notamment été initiés au dessin, aux techniques du street art et à la réalisation de pochoirs.

Cette découverte s'est prolongée par la création de leurs propres œuvres, qui ont ensuite été exposées dans la salle Lapurdi pendant toute la durée du festival Hartzaro.

À travers cette fresque, les personnages et l'esprit de Hartzaro sont désormais visibles toute l'année à l'entrée d'Uztaritze.

À l'entrée d'Uztaritze, au niveau du rond-point des Vicomtes du Labourd, une nouvelle fresque attire désormais le regard. Réalisée dans le cadre d'un appel à projets lancé par la commune, cette œuvre met à l'honneur Hartzaro, le festival qui fait vivre chaque année la tradition carnavalesque d'Uztaritze.

INAUGURATIONS MAJEURES : LA COMMUNE POURSUIT L'AMÉLIORATION DE SON CADRE DE VIE

Ces dernières semaines, plusieurs projets engagés de longue date ont connu leur aboutissement à Uztaritze.



Le nouveau local d'accueil de la plaine de Xopolo a été inauguré le samedi 13 juin, en présence des élus de la commune, des collectivités partenaires, du club et des différents acteurs ayant contribué à la réalisation du projet.

La réception des travaux des espaces publics du cœur de quartier d'Arruntza s'est également tenue le 3 juillet, réunissant les élus communaux, les partenaires institutionnels, les financeurs ainsi que l'ensemble des parties prenantes de cette opération structurante pour le quartier.

Une nouvelle vitrine pour le RCUJ

En collaboration avec le Rugby Club Ustaritz Jatxou (RCUJ), la commune s'est engagée à rénover le bâtiment d'accueil du stade de Xopolo qui n'était plus en adéquation avec ses usages et était vétuste.

Porte d'entrée du stade, ce bâtiment maintenant rénové, répond de façon plus optimale aux besoins quotidiens du club pour le stockage du matériel et pour l'organisation des moments de convivialité de fin de match. Ce nouvel équipement permet au club de poursuivre la dynamique de son développement: équipes jeunes et seniors, équipes féminines,

Un cœur de quartier apaisé et végétalisé à Arruntza

La commune a également répondu aux attentes formulées depuis de nombreuses années par les Arruntzar, au travers notamment de son comité de quartier. Les espaces publics du centre ont été repensés afin de répondre aux défis d'aujourd'hui et de demain : création d'espaces ombragés pour lutter contre les îlots de chaleur et sécurisation de la cohabitation entre piétons, vélos et voitures.

L'objectif, dans ces espaces traversés par des axes routiers, est de permettre le développement et le soutien de la vie locale autour d'une place publique où sont installés des commerces.

Ces deux projets, importants pour la commune, n'auraient pu voir le jour sans le soutien très volontariste de l'Etat, la FFR (Fédération Française de Rugby), la CAPB, ..., mais aussi sans l'implication des Uztaritzar qui ont activement participé à leur construction.

Il appartient désormais à chacun de faire siens ces nouveaux espaces et de les faire vivre au quotidien !

ESTREINALDI GARRANTZITSUAK: HERRIAK BERE BIZI-INGURUMENA HOBETZEN JARRAITZEN DU

Azken asteetan,
aspalditik abiatu
ziren hainbat
proiektu bururatu
dira Uztaritzen.

Xopolo zelaiko harrera-lokal berria ekainaren 13an, larunbatez, estreinatu zen, herriko hautetsiak, erakunde partaideak, kluba eta proiektuaren gauzatzeari parte hartu duten eragileak bertan zirela.

Arruntzan auzo-bihotzeko espazio publikoen obren bururapeneko bilkura ere uztailaren 3an egin zen, herriko hautetsiak, erakunde publikoetako ordezkariak, diruztatzailak eta auzoarentzat garrantzitsua den proiektu huntan parte hartu duten eragile guztiak bilduz.

RCUJrentzat erakusleirio berria

Ustaritz Jatxou Rugby Clubarekin (RCUJ) elkarlanean, herriak Xopoloko zelaiaren harrera lokala berritzeko engaiamendua hartu zuen. Eraikina zahar-ikitua zen eta ez zen gehiago bertan garatzen ziren erabileretara egokitua.

Zelaiaren sarrera nagusia den eraikin berri honek gaur egun klubaren eguneroko beharrei hobeki erantzuten die, materiala biltzeko eta partida ondoko elkartze eta ospakizunak antolatzeko. Azpiegitura berri horri esker, klubak bere garapen dinamika segitu ahal izanen du, gazteen eta seniorren taldeekin, emazte taldeekin eta beste hainbat egitasmorekin.

Arruntzan, auzo-bihotz baketu eta berdeagoa

Herriak Arruntzarrek urte luzez adierazitako itxaropenei ere erantzun die, bereziki auzo-batzordearen bidez helarazitakoei. Herriguneko espazio publikoak berrantolatu dira gaurko eta biharko erronkei erantzuteko: itzalgune berriak sortu dira beroguneei eragina mugatzeko, eta oinezkoen, bizikleten zein autoen arteko bizikidetzaren seguragoa izan dadin neurriak hartu dira.

Helburua da errepide ardatzek zeharkatzen dituzten gunen hauek tokiko bizitza garatzea eta sustatzea, saltegiak biltzen dituen plaza publiko baten inguruan.

Herriarentzat garrantzitsuenak diren bi proiektu horiek ez ziren gauzatu ahal izanen Estatuaren, FFRren, Euskal Hirigune Elkargoaren eta gainerako erakunde laguntzaileen babes sendoa gabe. Era berean, Uztaritzarren parte hartzea eta inplikazioa funtsezkoak izan dira proiektu horien eraikuntzan.

Orain, guztion ardura da espazio berri horiek eguneroko bizitzan biziaraztea.



UN COMPOSTEUR DE QUARTIER À HIRIBEHÈRE SUR LE PARKING XANDIENEA



Dans le cadre de sa politique zéro déchet et de préservation de l'environnement, la municipalité a travaillé avec le syndicat Bil Ta Garbi pour l'implantation d'un premier composteur de quartier destiné aux habitants de Hiribehere, voisins de Xandienea.

Cet équipement réservé à des foyers volontaires permettra de valoriser les restes alimentaires et les déchets verts produits au quotidien. Épluchures de fruits et légumes, marc de café, coquilles d'œufs ou encore petits déchets de jardin pourront ainsi être déposés dans le composteur pour être transformés naturellement en compost.

Afin d'assurer son bon fonctionnement, les services communaux fourniront du broyat. Ce mélange de matières sèches est indispensable pour équilibrer les apports, favoriser l'aération du compost et garantir une décomposition efficace des déchets organiques.

Le compostage représente un geste simple mais particulièrement efficace. En effet, les déchets organiques constituent près d'un tiers du contenu de nos poubelles

ménagères. Leur valorisation par le compostage permet ainsi de réduire de 30 à 40 % le poids des déchets collectés et transportés, tout en produisant un amendement naturel utile aux plantations et aux espaces verts.

Au-delà de ses bénéfices environnementaux, ce composteur collectif constitue également un lieu de partage et d'échanges entre voisins autour d'une démarche concrète en faveur du développement durable.

Les foyers volontaires pour rejoindre cette initiative ou implanter un composteur dans un autre quartier, peuvent se manifester à l'accueil de la mairie.

La municipalité se réjouit de cette nouvelle installation et remercie les référents du composteur de Xandienea pour leur implication dans ce projet au bénéfice de tous.

AUZO-KONPOSTAGAILU BAT HIRIBEHEREN, XANDIENEAKO APARKALEKUAN

Hondakinik gabeko politika eta ingurumenaren babesa sustatzeko duen engaiamenduaren baitan, herriak Bil Ta Garbi sindikatuarekin lan egin du lehen auzo-konpostagailuaren ezartzeko. Xandienearen inguruko Hiribehere auzoko biztanleei zuzendutako ekipamendu hau borondatez parte hartu nahi duten etxeentzat izanen da.

Egunerokoan sortzen diren janari hondarrak eta hondakin berdeak balorizatzeko parada emanen du. Fruitu eta barazkien azalak, kafe hondarrak, arraultze kuskuk edota lorategiko hondakin tipiak bertan utzi ahal izanen dira, modu naturalan konpost bilaka daitezen.

Konpostagailuaren funtzionamendu egokia segurtatzeko, herriko zerbitzuek egur puxkak hornituko dituzte. Materia lehorren nahasketa hori ezinbestekoa da ekarpenak orekatzeko, konpostaren aireztatzea errazteko eta hondakin organikoaren usteltze eraginkorra ahalbidetzeko.

Konpostatzea ekintza sinplea da, baina oso eraginkorra. Izan ere, hondakin organikoek etxe-ko hondakinak kasik herena osatzen dute. Konpostaren bidez balorizatzeak bildutako eta garraiatutako hondakinak

pisua % 30 eta % 40 artean murriztea ahalbidetzen du, aldi berean landareentzat eta berdeguneentzat onuragarria den ongarri naturala sortuz.

Ingurumenari egiten dizkion ekarpenez gain, konpostagailu kolektibo hau auzokideen arteko topagune eta trukaketarako gunea ere izanen da, garapen iraunkorraren aldeko ekimen zehatz baten inguruan.

Ekimen huntan parte hartu nahi duten etxeek, edo beste auzo batean konpostagailu bat ezarri nahi luketenez, Herriko Etxeko harrerarekin harremanetan jar daitezke.

Herria pozten da instalazio berri honen ezarpenaz eta eskerak eman nahi dizkie Xandieneko konpostagailuaren erreferenteei, guztien onerako den proiektu huntan erakutsitako inplikazioagatik.

POULES COMPOSTEUSES

Dans le cadre de sa politique "zéro déchet" et en complément de l'action du syndicat Bil Ta Garbi, la commune finance la mise à disposition d'un couple de poules pondeuses aux administrés qui en font la demande. Il s'agit de poules de réforme issues d'élevages locaux. Les adoptions auront lieu après la rentrée de septembre. Conditions et démarches sur le site internet www.ustaritz.fr

OILO KONPOSTATZAILEAK

"Zero hondakin" politikaren barnean eta Bil Ta Garbi sindikatua-ren ekintzaren osagarri, herriak oilo errule bikote baten ematea diruztatzen du. Erreformatarako oiloak dira, tokiko hazkuntzetakoak. Adopzioak irailetik aitzina egingen dira. Baldintzak eta desmartzak www.ustaritz.fr webgunean



Zer itzateke Uztaritze Kapito Harri gabe?

LES 100 ANS DU KAPITO HARRI

Fondé en 1926, le Kapito Harri est le club de pelote d'Uztaritze. Depuis un siècle, il transmet les valeurs essentielles de la pelote : le respect, l'engagement, l'esprit d'équipe et l'attachement à la culture. Le Kapito Harri est un acteur de la vie sportive et associative d'Uztaritze. Au fil des générations, le club a formé de nombreux pilotari, remporté de nombreux titres, notamment dans la discipline du rebot. Aujourd'hui encore, le club rassemble jeunes et anciens autour d'une même passion. Son centenaire est l'occasion de célébrer un héritage sportif et humain, avec une grande volonté de continuer à faire vivre et transmettre la pelote à Uztaritze.

Une année anniversaire riche en événements

Pour marquer cet anniversaire exceptionnel, l'association organise plusieurs rendez-vous qui rythmeront l'année 2026 :

La Fédération Française de Pelote Basque (FFPB), représentée par son président Lilou Etcheverria, a annoncé qu'Uztaritze, à travers le Kapito Harri, accueillera à la fois l'ouverture et la clôture de la Grande Semaine. Une décision inédite dans l'histoire de la Grande Semaine, puisque c'est la première fois que ces deux événements se déroulent dans la même commune. Les rendez-vous sont fixés les 9 et 16 août.

Les festivités ont débuté le 4 juin avec la projection de *Perkainen Haritik*, documentaire réalisé par Mikel Erramoupe, retraçant l'histoire de la pelote dans les villages de Banca, Les Aldudes et Urepel.

Le 22 juillet, à la salle Lapurdi, le Kapito Harri présentera l'ouvrage consacré à son histoire.



Un été au rythme de la pelote

Plusieurs compétitions et rencontres animeront l'été :

- **20 et 21 juin** : demi-finales du Championnat de France de baline féminine.
- **28 juin** : finales du Championnat de France de baline féminine.
- **14 juillet** : finales rebot cadet du comité de pelote du pays basque.
- **24 juillet** : partie de main nue avec des pilotari professionnels.
- **25 juillet** :
 - démonstration de Joko Garbi avec les jeunes du Kapito Harri ;
 - partie de pala avec les filles du Kapito Harri ;
 - défi seniors en main nue.
- **La grande semaine** : Les rendez-vous sont fixés les 9 et 16 août.

Une grande fête pour clôturer le centenaire

Enfin, le 12 septembre, le Kapito Harri célébrera officiellement ses 100 ans lors d'une journée et d'une soirée festives réunissant joueurs, bénévoles, partenaires, anciens membres et sympathisants du club. Cent ans d'histoire, de sport, de passion et de transmission qui font vivre Uztaritze.



KAPITO HARRIREN MENDEBURUA

1926an sortua, Kapito Harri Uztaritzeko pilota kluba da. Mende batez, pilotaren funtsezko baloreak transmititu ditu: errespetua, engaiamendua, talde-espirtua eta kulturarekiko atxikimendua. Kapito Harri Uztaritzeko kirol eta elkarte bizitzako eragile garrantzitsua da. Belaunaldiz belaunaldi, klubak pilotari ugari trebatu ditu eta titulu asko irabazi ditu, bereziki errebotean. Gaur egun ere, klubak gazteak eta helduak biltzen ditu pasio beraren inguruan. Bere mendeburua ondare kirol eta gizatiarra ospatzeko parada da, pilota Uztaritzen bizirik mantentzen eta transmititzen jarraitzeko borondate sendoarekin.

Ekitaldiz betetako urte berezia

Urteburu berezi honen ospatzeko, elkarrekin 2026an hainbat hitzordu antolatu ditu:

FFPBk, bere lehendakari Lilou Etcheverriaren bidez, iragarri du Uztaritzek, Kapito Harriren bidez, Aste Nagusiaren hasiera eta bukaera antolatuko dituela. Erabaki hau paregabea da Aste Nagusiaren historian, lehen aldiz bi ekitaldi hauek herri berean egingen direlako. Hitzorduak agorrilaren 9 eta 16rako finkatuak dira.

Ospakizunak ekainaren 4an hasi ziren, Mikel Erramouspek zuzendutako Perkainen Haritik dokumentalaren emanaldiarekin, Banka, Aldude eta Urepele herrietako pilotaren historia kontatzen duena.

Uztailaren 22an, Lapurdi gelan, Kapito Harri bere historiari buruzko liburua aurkeztuko du.

Uda pilotaren erritmoan

Udan zehar hainbat lehiaketa eta topaketa izango dira:

- Ekainaren 20 eta 21a: emazteen pilota balinaren Frantziako Txapelketako finalerdiak.
- Ekainaren 28a: emazteen pilota balinaren Frantziako Txapelketako finalak.
- Uztailaren 14a: Euskal Herri cadet-en komiteko errebote finala.
- Uztailaren 24a: esku huska banakako partida pilotari profesionalekin.
- Uztailaren 25a:
 - Joko Garbi erakustaldia Kapito Harriko gazteekin;
 - pala partida Kapito Harriko neskekin;
 - senior desafioa esku huskaz banaka.

Mendeburua hesteko besta

Azkenik, irailaren 12an, Kapito Harriki ofizialki ospatuko ditu bere 100 urteak, egun eta gau osoko bestarekin, klubeko jokalaria, boluntarioak, bazkideak, kide ohiak eta jarraitzaileak elkartuz.

Historiaz, kirolaz, pasioz eta transmisioz betetako ehun urte izan dira, Uztaritze biziarazten dutenak.



Osteguna, uztailaren 23a: Pintxo Poteoa

Besta Hitzopen Gaztetxeak antolatutako gualdi batekin hasiko da, 18:30ean. Pintxo Poteoa Xiballet elektrotxarangak animatuko du. Ibilbidea leku hauetatik pasatuko da: Capbourrut, Auberge du Fronton, La Petite Auberge, Le Garage des Pyrénées, Chez Didier, eta amaiera Bikaina dantza ostatuan izanen da.

Ostirala, uztailaren 24a

